

2019KO UZTAILAREN 2KO HERRIKO KONTSEILUA

Herri arteko THPren onartzea

Hazparneko Lurraldeko Herri Elkargo ohiak, 2015eko abenduaren 17ko deliberamenduaren bitartez, Herri arteko Tokiko Hirigintza Plana herri kideek aginduz prestatuko zela erabaki zuen. Bestalde, prestaketa horren kariatara eginen diren hitzartze moldeak eta Herri arteko Tokiko Hirigintza Planaren perimetroan dauden herrien elkarlan moldeak finkatu zituen.

Euskal Hirigune Elkargoa sortu aitzin, orain berak baitu “Tokiko Hirigintza Plana, dagozkion hirigintza agiriak eta herrien mapa” eskumena, Hazparneko Lurraldeko Herri Elkargo ohiak zuen eskumen hori, eta Herri arteko Tokiko Hirigintza Planaren prestaketa prozedura abian emana zuen.

Hirigintza kodearen L.153-9 1 artikuluari jarraiki, 2017ko urtarrilaren 1az geroztik, eskubide osoz, Hirigune Elkargoak du bera sortu aitzin abian ezarri ziren prozedura horiendako deliberamendu eta agiri guzien ardura, Herri Elkargoen ordez.

Bestalde, Euskal Hirigune Elkargoak du Hazparneko Lurraldeko Herri Elkargoak abian ezarri Herri arteko Tokiko Hirigintza Planaren prozedura beregain.

Herri arteko Tokiko Hirigintza Plan proiektuaren prestaketa lana egin denez, Donamartiriko Herriko Kontseiluari galdegiten zaio Herri arteko Tokiko Hirigintza Plan proiektu txostenari buruz iritzia eman dezan, Euskal Hirigune Elkargoak Pertsona Publiko Asoziatuak kontsultatu behar baititu.

Gogoetatu ondoren, Herriko Kontseiluak aho batez erabaki du Herri arteko Tokiko Hirigintza Planaren aldeko iritzia ematea.

2020ko erroldarendako herriko koordinatzailearen izendatzea

Azken errolda 2015ean egin zenez, hurrengo 2020ko urtarril/otsailean eginen da, eta beraz, herriko koordinatzaile baten izendatzea komeni da.

Herriko Kontseiluak, gogoetatu ondoren, aho batez erabaki du Aurélie LAZCANOTEGUI anderearen izendatzea herriko koordinatzaile.

Axuant tekniko postu baten sortzea

Kantina/hautzaindegiari lotu orenak HeBHeSra pasatu direnez, PAGADOY anderearen saria apaldu da, orain axuant tekniko gisa ari baita HeBHeSan eta horretan egiten baitu oren gehien, eta saria doi bat apalagoa baita axuant tekniko gisa herrian duen animazio axuant postuan baino.

Beraz, postuaren baitan egiten dituenak, hots HeBHeSren animazioa, eta herriko eginbehar teknikoagoak egokitu behar dira, eta langileari oren gehien egiten dituen postuan, hots HeBHeSn, sari hobe eman nahi genioke.

Integrazio zuzenen prozeduraren bitartez, herriko animazio axuant ofiziotik kanporatuko da HeBHeSn sartzeko, eta halaber, HeBHeSko axuant tekniko ofiziotik kanporatuko da, herrian sartzeko.

Postu hori 2019ko urriaren 1ean abiatuko da, enplegua hutsa dela adierazi ondoren, eta administrazio batzorde parekideak iritzia eman ondoren.

Beraz, prozedura horren abiarazteko, denbora ez osoko axuant tekniko postu bat sortu behar da, eta PAGADOY anderea hor kokatu, maila berean (9.ean), astean 6,4 orenez.

Gogoetatu ondoren, Herriko Kontseiluak aho batez erabaki du axuant tekniko postu baten sortzea.

1. erabaki aldatzailearen onartzea

2017ko aurrekontuko lerro bat artikulatu okerrari lotu zitzaionez, diruzain anderearen aholkuari jarraiki, 2019ko aurrekontuan pentsatua ez zen lerro bat eta mandatu bat gehitu behar dira.

Horretarako, hauek ezarri behar dira:

231 kontuan 15607 (gastuak)

132 kontuan 15607 (irabaziak)

Gogoetatu ondoren, Herriko Kontseiluak aho batez erabaki du 1. erabaki aldatzailearen onartzea.

Tresna numerikoen erabilera EHErekin bateratzeko hitzarmena.

Euskal Hirigune Elkargoak hitzarmen bat izenpetu duenez Lafibre 64 sindikatu mistoarekin, nahi duten elkargoei proposatzen die bere zerbitzu numerikoen baliatzea.

Bere zerbitzuetan, hauek dira barne:

- datuen babesteko araudi orokorraren araberako ezartzea, baitezpadakoa baita; sindikatu mistoa izanen da herriko datuen babesteko ordezkari.

Bestalde, herriak dituen bi zerbitzuren atxikitzea, Kontseiluak segitutasuna segurtatzeko gauza zenbait deliberatu behar baitu:

- manaketa publikoaren numerizatzea, eadministration64 plataformaren bidez
- legezketasun kontrolarendako igorketen numerizatzea, plataforma beraren bitartez

Zerbitzu horiek urrikerik izanen dira.

Gogoetatu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez erabaki du Auzapez jaunari sinatzeko baimenaren ematea.

Garatekoborda landetxeko kaltetuak hartu dituzten jendeei kalte-ordainen ematea

Joan den ekainaren 8an iragan zen sutearen ondorioz, 13 jende herriko beste landetxeetan kokatu behar izan ziren; Herriko Kontseiluari proposatu zaio harrera egin zieten jendeei kalte-ordainen ematea, aurkeztu fakturen kontra, azken mementoan urrikerik egin harreraren ondorioz izan zituzten gastuen ordaintzeko.

Asurantzek gastu horiek hartzen dituztenez, Herriko Kontseiluak erabaki du gastu horiek ez beregain hartzea.

Herriko kontseilari baten izendatzea, salbuespenez, eraikitze baimen baten sinatzeko

Auzapez jaunak, beretzat, eraikitze baimen bat aurkeztu duenez, herriko kontseiluko kide bat izendatzea komeni da, eraikitze baimenaren erabakiaren izenpetzeko.

Herriko Kontseiluak, gogoetatu ondoan, aho batez erabaki du Bernadette POCHELU anderea, lehen axuanta, izendatzea eraikitze baimenaren izenpetzeko.

Gainerateko gaiak:

Frontoiaren berregiteko proiektua mantendu behar den ala ez aipatu da. Alabaina, Estatuak izanen duen parte hartzea (%20koa) Herriko Kontseiluak espero zuena baino aise apalagoa izanen da. Hori dela-eta, Kontseiluak erabaki du, oraingoz, proiektua ez abiaraztea.

Kontseiluak klun ikusgarri baten behin-behineko kokatzeko galdea ere aztertu du. Ezezkoa eman du, toki eskasagatik, herriko bestak izanki karpa bat ezarriko baita frontoian.

Herriko Kontseiluak food-truck baten kokapen galdea aztertu du; baina berriki Mutturfin kamioia instalatu denez eta beste food-truck bat ere badenez, Herriko Kontseiluak ezezkoa eman du.

Herriko Kontseiluak CHABAGNO anderea izendatu du Kanalduderen herriko ekintzen koordinatzeko, saio bat prestatzen ari baitira.

Auzapeza,

Antton LARRABURU